

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

NEKAZARITZAKO IDAZKARITZA TEKNIKOA

24/2021 Foru Agindua, otsailaren 1ekoa. Onespina ematea Arabako Errioxan sexu nahasketako teknikak aplikatuz mahats mordoaren sitsari (*Lobesia botrana*) aurka egiteko estrategia bat garatze aldera parte hartzaile talde bat sortzeko interesa agertzeko deialdi publikoaren oinarriei

Aspaldi erakutsi zen sexu nahasketako tekniken bidez mahats mordoaren sitsari aurka egiteko metodoa eraginkorra dela, bai eta kausa-ondorio harremana dagoela ere mahastietan mahats mordoaren sitsa garatzearen eta mahatsaren heltze aldian *botrytisa* agertzearen artean. Horrek eragin negatibo zuzena dauka fruituaren kalitatean eta, beraz, ardoen kalitatean.

Sitsa kontrolatzeko sistema hori aspaldi ezarri zen mahastizaintza eta ardogintzako beste zona batzuetan, bai eta Errioxa JDren barruko zona jakin batzuetan ere, eta emaitza bikainak eman ditu. Hala ere, gure eremuan oraindik ez dago behar bezainbeste ezarrita eta, horregatik, Arabako Foru Aldundiak interes handia dauka Arabako Errioxako eskualdean teknika horren erabilera sustatzeko.

Teknika horren baldintza teknikoak eta ekonomikoak direla eta, teknika hori garatzeko enpresa eta erakundeen parte hartze aktiboa behar da, sustatzaile eta aholkulari jardun dezaten, bai eta osagai kimikoen eta haiek aplikatzeko behar diren ekipoen hornitzaileena, eta teknikaren azken erabiltzaile izan nahi duten mahastizain partikularrena eta upeltegiena ere.

Horregatik, Nekazaritza Sailak zerrenda bat osatu nahi du, Arabako Errioxako eskualdean teknika hori sustatzeko eta garatzeko sail horrek bultzatuko dituen ekintzetan parte hartu nahi duten eragile pribatu guztiak barnean hartuko dituen, informazioa eta sinergiak trukatzeko gaian aditu direnen eta, azkenean, teknika horiek beren lurzatietan aplikatuko dituzten mahastizainen eta upeltegien artean.

Administrazio publikoen jardunean bete beharreko publikotasun, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioak beteko direla bermatzeko, honekin batera doan eranskinean jasotako oinarrien arabera hautatuko dira *Lobesia botrana*ren aurka sexu nahasketako tekniken erabilera sustatzeko ekintzetan parte hartzaile izango direnak.

Hartzaile askorentzako administrazio egintza denez, haren lanketan ez da bete behar Xedapen Orokorrak egiteko Prozedura onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan ezarritako prozedura, dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aginduzko txostenak aztertuta, horregatik eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea Arabako Errioxan foru agindu honen eranskinean jasotako sexu nahasketako teknikak aplikatuz mahats mordoaren sitsari (*Lobesia botrana*) aurka egiteko estrategia garatze aldera parte hartzaile talde bat sortzeko interesa agertzeko deialdi publikoaren oinarriei.

Bigarrena. Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 1a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

ERANSKINA

Deialdi publikoaren oinarriak, zeina baita Arabako Errioxan sexu nahasketako teknikak aplikatuz mahats mordoaren sitsari (*Lobesia botrana*) aurka egiteko estrategia garatze aldera parte hartzaile talde bat sortzeko interesa agertzeko

1. Bete beharreko baldintzak

Honako hauek egin dezakete eskaera *Lobesia botrana* kontrolatze aldera feromonak aplikatzeko teknika sustatzeko kanpainako parte hartzaileen zerrendan sartzeko: pertsona fisiko eta juridikoek, upeltegiak, elkarteak eta bestelako erakundeak, baldin eta mahastizaintzarekin lotura badute edo feromonekin tratamendua egiteko osagai kimikoen edo haiek aplikatzeko ekipoen hornitzaileak badira, eta interesa badute Arabako Errioxako eskualdean teknika hori sustatu eta garatzeko ekintzetan parte hartzeko.

2. Eskaera aurkezteko epea, lekua eta modua

2.1. Parte hartu nahi duten erakunde, enpresa, upeltegi, entitate eta, oro har, mahastizainek hamabost egun balioduneko epean aurkeztu behar dute eskaera, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, agiri hauekin batera:

Eskaera orria (erantsitako ereduak), behar bezala beteta eta sinatuta, eta, harekin batera:

– Eranskina: enpresa edo erakundeen kasuan, baldin parte hartzeko arrazoia produktuei eta haien aplikazioari loturiko alde teknikoan aritzea bada, fitosanitarioen aplikazioan izandako lanbide esperientziaren laburpena.

Upeltegiak eta mahastizainek ez dute bete behar eranskin hori.

2.2. Arabako Foru Aldundiak beretzat gordetzen du eranskinean adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko agiriak eskatzeko eskubidea, eta agiri horiek 10 eguneko epean aurkeztu behar dira, eskatzen diren egunaren hurrengotik aurrera.

2.3. Eskaerak eta eranskina, hala dagokionean, ezarritako epearen barruan aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuan (Lapuebla errepidea z/g, Guardia), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritakoa albo batera utzi gabe.

3. Eskaerak aztertzea eta parte hartzaileen zerrenda osatzea

3.1. Deialdi hau ez da norgehiagoka prozedura eta, beraz, parte hartu nahi duten erakunde, enpresa, upeltegi, entitate eta mahastizain guztiak onartuko dira, baldin aurreko 2. apartatuan eskatutako agiriak betetzen badituzte eta irizpide orokorrak betetzen badituzte.

3.2. Parte hartzaileen zerrenda osatzeko, aurkeztutako eskaera guztiak aztertuko dira, eta honako hauek hartuko dira kontuan:

– Eskatzaile tekniko bada (aholkularia, merkaturatzailea, ikertzailea), aktibo aritu izana gutxienez azken hiru kanpainetatik batean *Lobesia botranaren* aurkako sexu nahasketako metodoaren aplikazioan, bereziki aplikazio zuzenaren bidez, Arabako Errioxako eskualdean.

– Eskatzailea upeltegia eta mahastizaina bada, bere lurzatietan dagoeneko sistema hori aplikatzen aritzea, edo gaur egun aplikatzen ibili ez arren deialdi honetan parte hartuta etorkizunean aplikatzeko asmoa duela adieraztea.

3.3. Eskaerak aztertu ondoren, Nekazaritza Sailak zerrendan sartzea uka dezake 2. apartatuan ezarritako onarpen agirien arabera desegokitzat jotzen dituenak eta, hala eginez gero, horren berri emango zaie interesdunei.

3.4. Parte hartzaileen zerrenda ofizialki eratuko da dagokion foru aginduaren bidez, zeina ALHAOn argitaratu eta parte hartzaileei jakinaraziko baitzaie.

3.5. Zerrenda horretako parte hartzaileek edozein unetan eska dezakete baja ematea, eta parte hartzen jarraitu ezin dutenei edo, Nekazaritza Sailaren iritziz, zerrenda eratzeko baldintzak betetzeari uzten dietenei ofizioz baja eman ahalko zaie.

Era berean, hasierako zerrenda osatu ondoren ere parte hartzaileak sartu ahal izango dira, betiere hala eskatzen badute eta Nekazaritza Sailaren iritziz ezarritako betekizunak betetzen badira.

3.6. Aurreikusitako ekintzak gauzatzeko parte hartzaileen hautaketa haien xedearen arabera eta ekimen honen helburuak betetzean parte hartzeko duten interesaren arabera egingo da.

3.7. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak koordinatuko du proiektu honetan parte hartuko duten enpresa, erakunde, entitate, upeltegi eta mahastizainen taldea.

3.8. Azkenean parte hartzaileen zerrenda osatuko duten eskatzaileei, nahiz eta ekintzetan parte hartu, ez die parte hartzeagatik ordainsaririk emango Arabako Foru Aldundiak.

4. Datuen pribatutasuna

4.1. Parte hartzaileak izango dira *Lobesia botranaren* aurka feromonen bidez sexu nahasketako metodoa aplikatzearen eremuan teknika horren sustapen jarduerak gauzatzeko beharrezko den jardueratik lortutako datuen titularrak. Hala ere, konpromisoa hartzen dute datu horiek Arabako Foru Aldundiarekin partekatzeko.

4.2. Era berean, Arabako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du datu horien konfidentzialtasuna errespetatzeko. Aldundiak datuok erabili ahal izango ditu helburuak betetzeko, baina ezingo ditu inolaz ere partekatu beste erakunde batzuekin, ez eta argitaratu ere, baldin eta datu horiek lagatzen dituzten erakundeek horretarako berariazko baimena ematen ez badute.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Lobesia Botranaren kontrolean feromonak erabiltzearen aldeko teknika sustatzeko kanpaina osatuko den erakundeen zerrendan sartzeko eskabidea.

Solicitud de inclusión en el listado de participantes en la campaña de promoción de la técnica de aplicación de feromonas para el control de Lobesia Botrana

CMI-1/2020

Nekazaritza Saila

Departamento de Agricultura

Urtea ■ Año

N.U.E zk. ■ N° R.E.A.

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración.)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

IKZ
CIF

NAN
DNI

AIZ
NIE

Besteren bat
Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

Emakumea
Mujer

Gizona
Hombre

Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

NAN
DNI

AIZ
NIE

Besteren bat
Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

Emakumea
Mujer

Gizona
Hombre

Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Protokolo zk. ■ N° protocolo

Data ■ Fecha

Notarioa ■ Notario

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil


Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

www.araba.eus

Probintzia plaza, s/n 01001 Vitoria-Gasteiz. Tel. +34 945 181818. Fax +34 945 181754. e-mail:afa-dfa@araba.eus
© Arabako Foru Aldundia - Diputación Foral de Álava

1/4

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Lobesia Botranaren kontrolean feromonak erabiltzearen aldeko teknika sustatzeko kanpaina osatuko den erakundeen zerrendan sartzeko eskabidea.</p> <p>Solicitud de inclusión en el listado de participantes en la campaña de promoción de la técnica de aplicación de feromonas para el control de Lobesia Botrana</p> <p>CMI-1/2020</p>
---	---

Nekazaritza Saila

Departamento de Agricultura

Oharra (1)

Datuen babesaren alorrean indarrean dagoen araudian ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu zure datuak Nekazaritza Sailaren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko direla. Fitxategi horrek segurtasun neurri guztiak dauzka eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren erregistroan inskribatuta dago. Bildutako datuak beharrezkoak dira mahasti zaharrak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntza kudeatzeko. Halaber, jakinarazten zaizu zure datuak ez zaizkiela emango izaera publiko edo pribatuko beste erakunde batzuei, salbu eta indarreko legedian xedatutako kasuak badira tartean. Nortasuna egiaztatu eta gero, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzu, Arabako Foru Aldundiaren jendeaurreko bulegoetara joanda (Probintziaren plaza 5, 01001. Gasteiz, Araba).

Oharra (2)

Adierazten dut laguntzaren oinarri arautzaileak onartzen dituen foru dekretuaren baldintza guztiak ezagutu eta betetzen ditudala.

Halaber, adierazten dut ez dudala dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio zehapenik edo zehapen penalik, ezta horrelako legezko debekurik ere.

Oharra (3)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, Helbide Elektronikoko Gaitua (DEH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

<http://notificaciones.060.es>

Oharra (4)

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Ez ordezkatzeko dudako erakundeak ez erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridikok edo elkartetan ez duela, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez zuzenean ez zeharka, onarpen eta funtzionamendu prozesuetan, OLOren 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasun Legearen 24(2) artikuluan xedatutakoarekin bat etorri.

Nota (1)

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en la normativa vigente en materia de Protección de Datos, le informamos que sus datos van a ser incluidos en un fichero, cuyo responsable es el Departamento de Agricultura y que cuenta con todas las medidas de seguridad y que ha sido inscrito en el Registro de la Agencia Vasca de Protección de Datos. Los datos recabados son necesarios para gestionar el listado de participantes en la campaña de promoción del uso de la técnica de aplicación de feromonas en Lobesia Botrana. Igualmente, se le informa de que sus datos no serán comunicados a otras entidades de carácter público o privado, ni a otros participantes en la campaña, salvo en los casos previstos de acuerdo con la legislación vigente. Vd. podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a las oficinas de atención al público de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia ,5. C.P. 01001 Vitoria-Gasteiz, (Alava), previa acreditación de su identidad.

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una Dirección Electrónica Habilitada (DEH) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente.

<http://notificaciones.060.es>

Nota 4

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO.- Que ni la organización a la que represento, ni persona jurídica o entidad alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de la entidad a la que represento realizamos actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 13 de la LGS y artículo 24(2) de la Ley de Igualdad de Euskadi

www.araba.eus

Probintzia plaza, s/n 01001 Vitoria-Gasteiz. Tel. +34 945 181818. Fax +34 945 181754. e-mail: afa-dfa@araba.eus
© Arabako Foru Aldundia - Diputación Foral de Álava

2/4



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Lobesia Botranaren kontrolean feromonak erabiltzearen aldeko teknika sustatzeko kanpaina osatuko den erakundeen zerrendan sartzeko eskabidea.

Solicitud de inclusión en el listado de participantes en la campaña de promoción de la técnica de aplicación de feromonas para el control de Lobesia Botrana

CMI-1/2020

Nekazaritza Saila

Departamento de Agricultura

BIGARRENA.- Ez ni ez ordezkatzan dudan erakundea edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridiko edo elkarte ez dela zigortua izan, ez arlo penalean ez administratiboan, sexua dela eta, inor baztertzegatik, ez eta abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren xedapen gehigarrietako hamalagarrenean gizonen eta emakumeen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik ere. Legegintzako errege dekretuak Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du eta lege organikoak emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna. Hona hemen halako batzuk, besteak beste:

1. Ez bete Langileen Estatutuak edo aplikagarri den hitzarmen kolektiboak berdintasun planen arloan ezarritako betebeharrak.
2. Sexua dela eta, ordainsari, lanaldi, prestakuntza, sustapen eta gainerako lan baldintzetan bereizkeria zuzena edo zeharkakoa dakarten enpresa erabakiak.
3. Langileek enpresan egindako erreklamazio edo berdintasun eta bereizkeriarik gabeko printzipioa betetzeko eskatzen duten egintza administratibo edo judicial baten aurrean, haien aurkako jarrera dakarten enpresaburuaren erabakiak.
4. Publizitate edo beste zernahi hedatze bidez, baldintzak ezartzea, sexua arrazoi, onerako edo txarrerako baztertzen dutenak.
5. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarlea normahi dela ere.
6. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarlea normahi dela ere, baldin eta enpresaburuak, jakinaren gainean, ez badu neurrik hartu halakorik ekiditeko.
7. Berdintasun planik ez egitea edo aplikatzea edo, halakorik izan arren, argi eta garbi ez betetzea, baldin eta plan hori egiteak abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.bis.2 paragrafoan xedatutakoari erantzuten badio. Legegintzako dekretu horrek Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du.

SEGUNDO .- Que ni yo, ni la organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de esta sociedad, hemos sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social y Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres de 22 de marzo (entre otras, a título no limitativo):

1. No cumplir las obligaciones que en materia de planes de igualdad establecen el Estatuto de los Trabajadores o el convenio colectivo que sea de aplicación
2. Decisiones unilaterales de la empresa que impliquen discriminaciones directas o indirectas adversas en materia de retribuciones, jornadas, formación, promoción y demás condiciones de trabajo, por circunstancias de sexo,
3. Decisiones del empresario que supongan un trato desfavorable de los trabajadores como reacción ante una reclamación efectuada en la empresa o ante una acción administrativa o judicial destinada a exigir el cumplimiento del principio de igualdad de trato y no discriminación
4. Establecer condiciones, mediante la publicidad, difusión o por cualquier otro medio, que constituyan discriminaciones favorables o adversas para el acceso al empleo por motivos de sexo,
5. Acoso sexual, cuando se produzca dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo de la misma
6. Acoso por razón de sexo, cuando se produzcan dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo del mismo, siempre que, conocido por el empresario, éste no hubiera adoptado las medidas necesarias para impedirlo
7. No elaborar o no aplicar el plan de igualdad, o hacerlo incumpliendo manifiestamente los términos previstos, cuando la obligación de realizar dicho plan responda a lo establecido en el Apartado 2 del 46 bis del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social.

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/ordezkariaren sinadura eta zigilua ■ Firma de la persona solicitante/representante y sello



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Lobesia Botranaren kontrolean feromonak erabiltzearen aldeko teknika sustatzeko kanpaina osatuko den erakundeen zerrendan sartzeko eskabidea.

Solicitud de inclusión en el listado de participantes en la campaña de promoción de la técnica de aplicación de feromonas para el control de Lobesia Botrana

CMI-1/2020

Nekazaritza Saila

Departamento de Agricultura

ANEXO

Erakundeak duen eskarmentu profesionalaren laburpena: landare osasunerako produktuen arloan, eta, bereziki, Lobesia Bortranan erabilitako feromonen erabileran.

Resumen de la experiencia profesional de la organización en el campo de aplicación de fitosanitarios, y especialmente en uso de feromonas en Lobesia Bortrana. A rellenar solo por los solicitantes que sean empresas del sector.

(*Tokia eta data* ■ *Lugar y fecha*)